



PRESIDENTEA:

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Susana Martín Benavides and.

Lauren Uria Peña jn.

Nerea Goti Valle and.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiano jn.

Iraida Saenz de Lafuente and.

**AIARAKO UDALAK 2019ko URTARRILAREN 24an
EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA.**

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemeretziko urtarrilaren hogeita lauan, hemeretzia direnean, Udaltzaga Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea, Gentza Alamillo Udaeta jauna, da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85) 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

EZ DA BERTARATU:

Josu ARTETXE ARANA jauna

IDAZKARIA:

M^a. del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongiatorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko abenduaren 19an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.- Jarraian, Udaltzagak 2018ko abenduaren 19an eginiko ohiko bilkuraren aktaren berri eman da.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotziak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta esan du galde-eskaeren atalean bere hitz-hartzea jasotzen dela baina bere ustez beharrezkoa zeri buruz ari den jasotzea, kasu honetan, Gorobel mendilerroari buruz.

Hitz-hartzeak amaitu eta gero, aho batez erabaki da, ohiko bozketaren bidez, akta onestea.

2.- Luzatzea, bidezkoa bada, Udaltzagak 2017/01/19an Gizarte Zerbitzuen prestazioari buruz hartutako erabakia.Jarraian, Udaltzagak 2017/01/19an egindako Gizarte Zerbitzuen prestazioari buruzko erabakia luzatzeko proposamena jakinarazi da. Arlo sozioekonomikoko, berdintasuneko eta immigrazioko Informazio Batzordeak eman zuen horren berri 2019ko urtarrilaren 15ean eginiko bileran. EAJ-PNV taldeko bi ordezkariak aldeko botoa eman zuten, eta EH-BILDU taldeko bi ordezkariak eta AIARA-BATUZ taldeko ordezkariak abstenitu egin ziren. Honako hau dio proposamenak:

“IKUSI DA Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen (abenduaren 5eko 12/2008 Legea; aurrerantzean, GZL) 42. artikulua ezartzen duen moduan, Udaltzaga dagokiola funtzio hauek betetzea:

(...)

3) 29. artikuluan zehazturik datozen oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik (...). Lehen arretako gizarte-zerbitzu horiek 22. artikuluko 1. paragrafoan daude arauturik.

IKUSI DA GZLaren 2. artikulua gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ezartzen duela, zeina 2016ko abenduaren 26an perfektionatu baitzen.

AINTZAT HARTU DA arau-eskakizun horien ondorioz, honako hau egiaztatzen dela:

a) GZLaren 42. artikulua, eta Legean jasotako beste araudi-erreferentzia batzuek, bereizi egiten dituzte udal-eskumena eta zerbitzuaren prestazio eraginkorra.

b) GZLaren helburu argi eta zehatza da udal-eskumenerako gizarte-zerbitzuak hainbat udal elkartuta eman ahal izatea (GZLaren 28.2 eta 29.4 artikulua).

c) Helburu hori beharrezkoa da Arabako Lurralde Historikoa; izan ere, udalerri batek ere, Gasteizek izan ezik, ez du gainditzen 20.000 biztanleko muga. Aiara ere ez da muga horretara iristen.

d) Prestazio partekatu hori jasota dago, halaber, GZLaren 36.5 artikuluan; izan ere, bertan ezartzen da Gizarte Zerbitzuen Mapa, aplikatu ahal izateko, foru- eta toki-administrazioek zehazten dituzten banaketa geografikoak hartuko dituela aintzat.

Bere garaian onetsi zen Arabako Lurralde Historikoko Zerbitzuen Mapa, baina une honetan zehazteko dago udal-mugapetik haragoko lurralde-esparruan eman behar diren gizarte-zerbitzuak emateko modua.

e) Orain arte Arabako Foru Aldundiak bere kabuz eta Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiaren bidez ematen zituen udal-zerbitzuetako asko, eta ezarritakoaren arabera zerbitzu horiek udal-eskumenerako dira.

f) GZLak berariaz aitortzen du administrazioen arteko lankidetzaren eta koordinazio-betebeharra; hori berezkoa da gizarte-zerbitzuz osaturiko honelako sistema batek.

g) Era berean, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 31.2.a) artikulua ezartzen du aldundien xedeetako bat dela “probintziako lurralde osoan udalerriaren eskumenerako zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatzea”.

h) Aiara Udalak 2017ko urtarrilaren 19an erabaki zuen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 Erabakiarekin bat zetorrela adieraztea. Erabaki horretan onetsi zen Aldundiak gizarte-zerbitzuak ematen jarraituko zuela 2016ko abenduaren 26tik aurrera, Aldundiak eta 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerriek ordura arte elkarrekin kudeatu duten modu berean. Erabaki zen zerbitzu hori behin-behinean emango zuela Aldundiak, 24 hilabeteko aldi batez, eta aldi horretan, Mapa egiteko eraturako erakundearteko mahaiak gizarte-zerbitzu guztiak emateko behar diren baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko zituela, bakoitzari dagokion eskumen-esparruan, eta mapa pixkanaka ezarriko zela adierazitako aldian.

i) Prozesu hori ez da amaitu oraindik, etxeko laguntza zerbitzuari dagokiona izan ezik.

IKUSI DA Arabako Foru Aldundiaren abenduaren 21eko 765/2018 Erabakia, zeinaren bitartez onetsi egiten baita Lurralde Historikoko Udalerri jakinaraztea abenduaren 26ko 904/2016 hitzarmena **2020ko ekainaren 26ra arte luzatzeko** proposamena. Aurreko hitzarmen horretan, onetsi zen behin-behinean mantenduko zirela gizarte-zerbitzuak, etxeko laguntza zerbitzua izan ezik, Arabako Lurralde Historikoko aldundiak eta 20.000 biztanletik beherako udalerriek kudeatu izan duten modura, eta bere garaian adostutako baldintzetan.

Kontuan hartuta beharrezkotzat jotzen dela, batetik, udal-eskumenerako diren zerbitzuak emateko eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorroari buruzko Dekretuan eta Plan Estrategikoan zehaztutakoa betetze aldera lankidetzan jarraitzeko; hori guztia egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuarekin bat datorren perspektiba teknikoa, juridikoa eta finantza-nahikotasunari dagokiona ardatz hartuta.

Eta, araudiari dagokion datutik abiatuta, Erabakiaren hirugarren puntuak ezartzen du, hori eraginkorra izan dadin, udal-erri bakoitzeko eskumeneko udal-organoak erabakia onartu eta dagokion jakinarazpena egin behar diola Arabako Foru Aldundiari, ziurtagiri bidez.

Horregatik guztiagatik, Aiarako Udalbatzari eskatu zaio erabaki hau har dezala:

LEHENENGOA.-Aiarako Udalak adieraz dezala bat datorrela Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 21eko 765/2018 erabakiarekin. Erabaki horrek onetsi egiten du abenduaren 26ko 904/2016 erabakia 2020ko ekainaren 26ra arte luzatzea, zeinetan onetsi egin baitzen behin-behinean mantenduko zirela gizarte-zerbitzuak, etxeko laguntza zerbitzua izan ezik, Arabako Lurralde Historikoko Aldundiak eta 20.000 biztanletik beherako udalerriek kudeatu izan duten modura, eta bere garaian adostutako baldintzetan.

BIGARRENA.-alkateari erabaki honetan zehazten den guztia garatzeko eta kudeatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA:erabaki hau Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea, testu horren hirugarren xedapenean ezartzen diren ondorioetarako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du aldundia arlo honetan lanean ari dela Gizarte Zerbitzuen prestazioa prestatzen amaitzeko, baina oraindik ez dutenez lana bukatu, eta kontuan hartuta, gainera, aurten trantsito eguna dela eta udal-hauteskundeak egingo direla maiatzean, beharrezkoa da gizarte-zerbitzuak behin-behinean mantentzeko hartu den erabakia luzatzea, etxeko laguntza zerbitzua izan ezik, aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerriek kudeatu duten modura. Adierazi du horretarako Eudelek Udalek hartu beharreko erabakiaren eredu bat bidali duela.

Iraida Sáenz de Lafuente Blanco zinegotziak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta esan du batzordean abstenitu egin zirela, ez zutelako Arabako lurralde mahaitik gertuago zegoen informaziorik, baina orain alde bozkatuko dutela, betiere konpromiso bat hartzen bada haiei lanei buruzko informazioa helarazteko.

Gentza Alamillo Udaeta alkateak (EA—PNV) esan du mahaiari galdetuz joango direla baina mahai horretan Eudelen, alderdi politikoen eta Independenteen, alkateren baten eta aldundiaren ordezkariak daudela. Amaitzeko, esan du informazioa jaso ahala helaraziko dutela.

Hitz hartzeak amaitu eta gero, aho batez erabaki da, ohiko bozketa eginda, hitzez hitz jaso den erabaki proposamena onartzea.

3.- Aiarako Udalak Euskal Fondoari 2018ko ekitaldirako egingo dion ekarpenaren proposamena.- Udalbatzari jakinarazi zaio Arlo sozioekonomikoko, berdintasuneko eta immigrazioko Informazio Batzordeak 2019ko urtarrilaren 15ean eginiko bileran oniritzia eman ziola EUSKAL FONDOARI 1.568,55 euroko diru laguntza emateari, proiektu hau egiteko: “Edateko ura lortzeko ur-putzu mekanikoa eraikitzea. San Jose Chiyu eta Santa Rita herrixkak. CHAHAL”. Eta laguntza hau gauzatzeko unean EUSKAL FONDOAK adierazten badigu aurreko proiektu hori amaituta dagoela, Aiarako Udalak proposatzen du zenbateko berarekin laguntzea beste proiektuari: “San Luis Tonitzul eta La Cañada eta auzuneetan edateko ur sistema eraikitzea. Raxruha III. fasea”.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du honako hau, ohiko bozketa eginda:

Lehenengoa.1.568,55 euroko diru-laguntza ematea EUSKAL FONDOARI "LANKIDETZARAKO ETA GARAPENERAKO LAGUNTZAK" 231.481003 aurrekontu-aplikazioaren kargura, proiektu honetarako:

“Edateko ura lortzeko ur-putzu mekanikoa eraikitzea. San Jose Chiyu eta Santa Rita herrixkak. CHAHAL”

Bigarrena: laguntza hau gauzatzeko unean EUSKAL FONDOAK adierazten badigu aurreko proiektu hori amaituta dagoela, Aiarako Udalak proposatzen du zenbateko berarekin laguntzea beste proiektuari:

“San Luis Tonitzul eta La Cañada eta auzuneetan edateko ur sistema eraikitzea. Raxruha III. fasea”.

Hirugarrena.- Diru-laguntza jarduera egiaztatu eta gero ordainduko da, eta, horretarako, egiaztagiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Elkarteko presidentek sinatutako zinpeko deklarazioa, Udal honek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako diru-laguntza guztiak adierazten dituena.
- Erakundeko idazkariak egindako ziurtagiria, Gobernu Organoak diru-laguntza onartzeko hartu duen erabakia egiaztatzen duena.
- Jardueraren memoria, programa zehatzak, eta egindako jardueren diru-sarrera eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Diruz lagundutako gastuen faktura originalak edo kopia erkatuak. Fakturen edo kopien datak 2018koak izan behar dute, edo behintzat, 2018ko abenduaren 31 baino lehenagokoak.
- Aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren egiaztagiriak.
- Erakundeko idazkariak egindako ziurtagiria, adierazten duena bete egin dela diru-laguntzaren helburua, eta emandako diru-laguntza osoak ez duela gainditzen jardueraren kostua. Zerbait ez bada justifikatzen edo Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003ko Legearen 37. artikuluan aurreikusitako kausa bat gertatuz gero, diru-laguntza erabat edo partzialki kobratzeko eskubidea galduko da.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea dagokion konpromiso-agiria sinatzeko.

Bosgarrena.- Erakunde interesdunari jakinaraztea diru-laguntza emango zaiola.

4.- Onestea, bidezkoa bada, EHUren eta Aiarako Udalaren arteko Hezkuntza Lankidetzaren Hitzarmena.Jarraian, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Aiarako Udalaren arteko Hezkuntza Lankidetzaren Hitzarmen proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari, eta jakinarazi da Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteen arloko Informazio Batzordeak proposamenaren aldeko irizpena eman zuela 2019ko urtarrilaren 15ean. Honako hau dio hitzez hitz:

“IKUSI DA Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Aiarako Udala Erakunde Laguntzailearen arteko Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen proposamena, Zuzenbide Fakultateko Zuzenbideko Gradu eta Kriminologiako Gradu ikasleek kanpoko praktika akademikoak egiteko.

AINTZAT HARTU DA kanpoko praktikak prestakuntza arlokoak direla eta ez lan arlokoak eta, hortaz, horrek ez dizkiola sortuko Aiarako Udalar lan-harreman bati dagozkion betebeharrak.

AINTZAT HARTU DA hitzarmen hau Administrazio Publikoen arteko Kooperazio, Lankidetzeta eta Koordinazio printzipioei dagokiela, besteak beste, honako artikulua hauean adierazitakoak: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1 k) artikulua.

AINTZAT HARTU DA Aiarako Udalak ez duela ekarpen ekonomikorik egin behar izango hitzarmen hau sinatzeagatik.

Horregatik guztiagatik, Udalbatza Osoari proposatzen zaio ERABAKI hau hartzeko:

LEHENENGOA.- Euskal Herriko Unibertsitatearekin Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen bat sinatzea Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Erakunde Laguntzailearen (Aiarako Udala) artean, Zuzenbide Fakultateko Zuzenbideko Gradu eta Kriminologiako Gradu ikasleek kanpoko praktika

akademikoak egiteko, hasiera batean pertsona batentzat. Honako hau da testua:

“HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO HITZARMENA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA AIARAKO UDALA ERAKUNDEAREN ARTEKOA, ZUZENBIDE FAKULTATEKO ZUZENBIDEKO GRADUKO ETA KRIMINOLOGIAKO GRADUKO IKASLEEK KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO

Aiaran, 2019koaren.....(e)(a)n

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik,andrea, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean (aurrerantzean UPV/EHU), Zuzenbide Fakultateko dekanoa den aldetik, indarrean den Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Arautegiari jarraiki..

Eta, beste alde batetik,jauna, **AIARAKO UDALA**ren izenean, Aiarako alkatea den aldetik.

Elkarri aitortuz hezkuntza lankidetzarako hitzarmen hau izenpetzeko legez behar den ahalmena

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.- UPV/EHUren helburuetako bat da *“Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestaketa ziurtatzea”*.

Bigarrena.- Aiarako Udala erakunde laguntzailearen iritziz hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1 k) artikuluan adierazten diren Administrazio Publikoen arteko Kooperazio, Lankidetzeta eta Koordinazio printzipioei dagokie, eta honen bidez zerbitzu osagarri bat eman dakieke herritarrei.

Hirugarrena.- Kanpoko praktika akademikoak ikasleen prestakuntzara bideratutako jarduerak dira, unibertsitateak gainbegiratzen dituen, eta horien helburua da ikasleei aukera bat ematea prestakuntza akademikoan eskuratu dituzten ezagutzak aplikatu eta osatzeko. Hala, beharrezkoak diren gaitasunak eskuratuko dituzte lan munduan aritzeko, lana bilatzeko eta beren ekiteko gaitasuna areagotzeko.

Laugarrena.- Kasu honetan, curriculumeko praktikak dagokion ikasketa planeko jarduera akademikoak dira.

Bosgarrena.- UPV/EHUK Zuzenbideko eta Kriminologiako titulazioak eskaintzen ditu, eta erakunde laguntzaileak bere jarduera sektore publiko instituzionalean garatzen du.

Seigarrena.- Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Arautegiarekin bat etorrita, kanpoko praktika akademikoak egin ahal izango dituzte unibertsitateak edo hari atxikitako ikastegiekin eskaintutako irakaskuntzan matrikulatuta dauden ikasleek. Horrez gain, araudian ezartzen da kanpoko praktikak egiteko unibertsitateak hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak sinatuko dituela erakunde laguntzaileekin.

Hori dela eta, bi aldeek

HITZARTZEN DUTE

Bakarra.- Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen hau sinatzea, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea

Hezkuntza lankidetzarako hitzarmen honen helburua da UPV/EHUko ikasleek aipatutako erakunde laguntzailean egingo dituzten curriculumeko praktika akademikoak arautzea, Unibertsitate-ikasleen kanpoko jarduera akademikoak arautzen dituen uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuak eta Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Arautegiak ezarritakoarekin bat etorrira.

Bigarrena.- Praktiken lekua eta programa

Praktikak egiteko lekua hitzarmen honi gehitutako I. eranskinean adieraziko da.

Praktiken iraupena eta ordutegiak praktiken ezaugarriak kontuan hartuta eta erakunde laguntzaileak dituen ahalmenen arabera zehaztuko dira, betiere haren ohiko jardunari ahalik eta traba gutxien egiteko.

Dagokion ikasketa planean oinarrituta, tutorearen ardura izango da praktikak hasi aurretik prestakuntza proiektu bat egitea. Proiektu horretan adierazi beharrekoak izango dira:

- Praktikari lotutako ikasketak.
- Praktika zer erakundetan eta lekutan egingo den.
- Ikasketa tutorea.
- Erakundeko begiralea.
- Praktiken programako arduraduna.
- Ikasleen zerrenda (hala badagokio).
- Prestakuntzaren helburuak eta jarduerak.

Hirugarrena.- Erakunde laguntzailearen eta ikaslearen arteko harremana.

1.- Prestakuntza jarduerak direnez, kanpoko praktika akademikoek ez dituzte sortuko lan harreman bati dagozkion betebeharrak, eta ezin izango dira erabili lanpostu bateko lan arautuaren ordezkoko gisa.

2.-Era berean, ikasketak amaitutakoan ikaslea erakunde laguntzailearen plantillan sartuko balitz, praktikaldia ez da aintzat hartuko antzinatasuna zenbatzeko, eta ez du balioko probaldia ordezkatzeko, non eta dagokion hitzarmen kolektiboan beren-beregin bestelakorik adierazten den.

Laugarrena.- Praktikako begiralea

1.-Erakunde laguntzaileak begirale bat izendatuko dio ikasle bakoitzari, eta begirale horrek antolatuko ditu prestakuntza jarduerak, praktika programaren arduradunarekin eta ikaslearen tutorearekin ados jarrita.

2.-Erakunde laguntzaileak izendatutako begiralea erakunde horri lotutako pertsona bat izango da, esperientzia profesionala ez ezik, tutoretza lan egokia egiteko ezagutzak ere izango dituena. Begiralea eta unibertsitatearen tutoretza lana egingo duen pertsona ez dira bat eta bera izango.

3.-Begiraleak praktika programaren arduradunaren onespena eduki beharko du, eta horri begira “venia docendi” aitortu beharko zaio ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzeko UPV/EHUko Arautegian zehaztutako prozeduraren bitartez.

Bosgarrena.- Begiralearen eskubideak eta betebeharrak

1. Erakunde laguntzaileko begiraleak eskubide hauek izango ditu:

a) Laguntzaile gisa eginiko lana aitortua izatea, aurreko klausularen 3. zenbakian ezarritakoaren arabera.

b) Kanpoko praktikak arautzen dituen arautegiari buruzko informazioa jasotzea, baita prestakuntza proiektuari eta proiektuaren baldintzei buruzkoa ere.

c) Unibertsitatera jo ahal izatea, bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta laguntza eske.

d) Bere etengabeko prestakuntzarako lagungarri izan daitezkeen unibertsitate instalazioak eta zerbitzuak erabiltzea (bibliotekak, mintegiak, etab.).

2. Era berean, honako betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Ikasleari harrera egitea, eta egin beharreko jarduerak antolatzea, prestakuntza proiektuaren arabera.
- b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea eta praktika orientatzea eta kontrolatzea, elkar errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarritutako harreman baten bitartez.
- c) Ikasleari erakundearen funtzionamenduaren eta arauen berri ematea, batez ere laneko segurtasunari eta arriskuei dagokienez.
- d) Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea, hitzarmen honen bitartez ezarritako jarduerak aurrera eramateko eta prestakuntza proiektuan beharrezko gerta daitezkeen moldaketak egiteko. Halaber, praktikan zehar sor litezkeen gorabeheren berri ematea tutoreari eta haiei konponbidea ematea, eta ikasleei azterketetara joateko baimenak ematea.
- e) Praktiken amaierako txostena egitea, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzeko UPV/EHUren Arautegiaren IV. eranskineko ereduaren arabera.
- f) Ikasleari behar duen prestakuntza osagarria ematea praktika egiteko.
- g) Ikasleari praktikarako behar dituen ezinbesteko baliabide materialak ematea.
- h) Ikaslea bultzatzea eta animatzea berrikuntza, hobekuntza eta ekimen proposamenak egitera.
- i) UPV/EHUko tutoreari erakundearekiko hartu-emanak erraztea, eginkizunak ondo bete ditzan.
- j) Konfidentziasunez gordetzea ikaslearen inguruko informazioa.
- k) Erakundearen dagoen bitartean, ikasleari bere jardueretan sortzen zaizkion arazo edo zalantza profesionalak konpontzen edo argitzen laguntzea.

Seigarrena.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

1. Kanpoko praktika akademikoak egin bitartean, ikasleek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Praktikak iraun bitartean, tutoretza jasotzea, unibertsitateko irakasle batena eta erakunde laguntzailean diharduen profesional batena.
- b) Ebaluatua izatea, unibertsitateak ezarritako irizpideen arabera.
- c) Erakunde laguntzailearen eskutik txosten bat jasotzea, honako informazio hau jasota: egindako jarduera, iraupena, eta ikaslearen errendimendua, hala dagokionean. Txostena UPV/EHUko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiko IV. eranskineko ereduaren arabera egingo da.
- d) Hala adosten den kasuetan, erakunde laguntzaileak ikasketetarako emandako poltsa edo laguntza jasotzea.
- e) Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, legeriak arlo horretan zehaztutako baldintzetan, non eta ikasleak lagapen edo transmisio dokumentua sinatu duen.
- f) Erakunde laguntzailearen eskutik segurtasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko arautegien informazioa jasotzea.
- g) Beren jarduerak (akademikoa, prestakuntza arlokoak eta ordezkaritza nahiz partaidetza arlokoak) betetzea, horien berri emanez garaiz erakunde laguntzaileari.
- h) Ezgaitasunak dauzkaten ikasleek eskubidea izango dute gidaritza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko behar diren baliabideak edukitzeko eta praktikak beste ikasleen baldintza berberetan egiteko.
- i) Ezgaitasunak dauzkaten ikasleek eskubidea izango dute praktikak kontziliatzeko beren ezgaitasunetik sortutako edo hari lotutako jarduera edo egoerekin.

2. 2.-Era berean, kanpoko praktika akademikoak egin bitartean, ikasleek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Unibertsitatearen kanpoko praktikei buruzko arautegia betetzea.
- b) Unibertsitatearen kanpoko praktikei buruzko arautegia betetzea.
- c) Praktiken prestakuntza proiektua ezagutzea eta betetzea, erakunde laguntzaileak izendatutako begiralearen jarraibideak kontuan izanik eta unibertsitateko tutorearen gainbegiradapean.

d) Praktikak egin bitartean unibertsitateko tutorearekin harremanetan egotea eta sortutako gorabeherak hari jakinaraztea. Entregatu beharko ditu ere eskatzen zaizkion dokumentuak eta jarraipen txostenak eta azken txostena.

e) Erakunde laguntzailean lanean hastea, aurrez adostutako egunean, hezkuntza proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea, eta erakunde horren funtzionamendu, segurtasun eta lan arriskuen prebentzio arauak errespetatzea.

f) Prestakuntza proiektua garatzea eta erakunde laguntzailearekin hitzartutako jarduerak egoki betetzea, proiektuan ezarritako lan ildoan arabera.

g) Praktiken amaierako txostena eta, hala behar izanez gero, tarteko txostena egitea, Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzeko UPV/EHUren Arautegiaren V. eranskineko ereduaren arabera.

h) Konfidentzialtasuna gordetzea erakunde laguntzaileaz izan dezakeen informazioa, eta haren jardueren gaineko sekretu profesionala zaintzea, egonaldian eta hura amaitzean.

i) Erakunde laguntzailearen politika errespetatzea, eta UPV/EHUren izen ona zaintzea.

j) Indarrean dagoen araudian aurreikusitako beste edozein betebeharrak.

3. Aurreko atalean zehaztutako betebeharrak bete ezean, praktikak bertan behera utzi ahal izango dira, epea amaitu aurretik. Horretarako, UPV/EHUK edo enpresak hitzarmen honen bidez ezarritako Jarraipen Batzordeari egoeraren berri emango dio, eta hark, hamar eguneko epean gehienez ere, praktikak bertan behera utzi behar diren ala ez erabaki beharko du.

4. Ikasleak praktiketara joateari utz diezaioke azterketak egiteko, begiraleari hiru eguneko aurrerapenaz justifikatuz gero. Arrazoi akademikoengatik edo beste era bateko arrazoiengatik joan ezean, ahalik eta lasterren emango zaie horien berri tutoreari eta begiraleari, eta tutorearen baimena lortu beharko da.

Zazpigarrena.- Instalazioak eta baliabideak.

Erakunde laguntzaileak bere instalazioak eta baliabideak eskainiko ditu praktikak egiteko, eta zenbat ikasle har ditzakeen zehaztuko du.

Zortzigarrena.- Erantzukizunak eta aseguruak.

1. UPV/EHUK erantzukizun zibileko poliza bat du kontratatuta, ikasleek praktikak egitean sor ditzaketen kalteei aurre egiteko.

2. Unibertsitateak ez ditu bere gain hartuko kalteak, ezta praktiketako ikasleak berak ere, baldin eta kalteok enpresako/erakundeko begiraleak praktiketako programan jasota ez dauden aginduak edo jarraibideak eman izanaren ondorio badira.

3. Praktikak egiteko, 28 urtetik gorako ikasle bakoitzak aseguru bat sinatu beharko du. Aseguru osagarri hori UPV/EHUK hitzartuta duen CUM LAUDE istripuetarako talde poliza izan daiteke, edo edozein erakundek eskainitakoren bat, baldin eta gutxienez UPV/EHUren (CUM LAUDE) bitartez eskaintzen diren kontzeptuak estaltzen baditu. Egokitzat jotzen badu, modu osagarrian sinatu ahal izango du adin nagusikoa izan aurretik.

4. Berezko Ikasketetan eskola aseguruak ez duenez ikaslea estaltzen, gerta litezkeen gorabeherak UPV/EHUko Berezko Tituluaren Zuzendari Akademikoak izenpetutako polizen kargura estaliko dira.

5. UPV/EHUrekin hitzarmen bat duten atzerriko unibertsitateetatik etorri eta erakundean praktikak egiten dituzten ikasleek istripuetarako poliza bat izan beharko dute izenpetuta, CUM LAUDE polizaren antzeko gutxieneko estaldura izango duena.

Bederatzigarrena.- Poltsa edo laguntza

Ikasleek ez dute inolako diru kopururik jasoko praktikak egiteagatik.

Nolanahi ere, kanpoko praktika egiteagatik ikasleari ikasketetarako poltsa edo laguntza bat ordaindu behar bazaio, erakundeak indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga obligazioak bete beharko ditu.

Hamargarrena.- Ikasleen datuak babestea

Praktikak enpresan egiten dituzten ikasleen datuak hitzarmen honetan ezarritako xedeetarako baino ezingo dira erabili.

Hamaikagarrena.- UPV/EHUren beste konpromiso batzuk

1.- Aurretik esandakoei kalterik egin gabe, UPV/EHUK parte hartzen duten ikasleekin konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Hitzarmen honen baldintzak jakinaraztea, ikasleari eragiten dioten alderdi guztietan.
- b) Ikasleak bere gain hartzea hitzarmen honek eta aplikagarria den araudiak ezartzen dizkion betebeharrak.
- c) Ikasleek beren datuen erabilera espresuki onartzea, aurreko klausulan ezarritako xedeetarako.

2.- 2.-Aurrekoaren ondorioz, UPV/EHUK ikasle bakoitzak sinatutako dokumentuaren kopia bat emango dio erakunde laguntzaileari.

Hamabigarrena.- Jarraipen Batzordea

1.-Jarraipen Batzorde bat eratuko da, tituluaz arduratzen diren ikastegiko bi ordezkari eta erakunde laguntzailearen beste bi kidek osatuta. Horren egitekoa izango da praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherei buruzko erabakiak hartzea.

2.-Batzordea eratzean, sinatzaileak batzordeburu izango dira txandaka, eta UPV/EHUri egokituko zaio hasierako txanda.

Hamahirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

1.- Hitzarmen honek urtebeteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik hasita. Nolanahi ere, alde sinatzaileetako edozeinek salatu ahal izango du hitzartutakoak ondoriorik ez izatea nahi den ikasturtearen aurreko ikasturteari dagokion martxoan baino lehen.

2.-Hitzarmenaren salaketa idatziz eskatuko da, eta ez du inolako eraginik izango jada abian dauden praktiken garapenean, seigarren klausulan praktikak aldeztu aurretik bertan behera uzteari dagokionez bere horretan utzita.

Eta aurrekoarekin ados daudela erakusteko, parte hartu duten aldeek hezkuntza lankidetzarako hitzarmen honen bi kopia sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ERAKUNDEAREN IZENEAN

DIFUSIÓN JURÍDICA Y TEMAS DE ACTUALIDAD, S.L.

(Sinadura eta zigilua)".

BIGARRENA.- Erabakiaren berri ematea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibersitateari.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, eta aho batez erabaki da, ohiko bozketa eginda, hitzez hitz jaso den erabaki proposamena onartzea.

5.- EH BILDU AIARAK aurkeztutako mozioa, Goi Nerbioiko saneamendu-sistemaren exekuzioa ez betetzeari buruzkoa.-Jarraian Aiarako EH-BILDU udal taldeak aurkeztutako mozioaren berri eman zaio Udalbatzari. Honako hau dio hitzez hitz:

"Mozioa, Goi Nerbioiko saneamendu-sistemaren exekuzioa ez betetzeari buruzkoa

Goi Nerbioiko gaur egungo saneamendu-sistemak, zeina interes orokorreko izendatu baitzen uztailaren 5eko 10/2001 Legearen bitartez, bi sare kolektore eraikitzea planteatzen du: bat Nerbioi ibairako eta beste bat Altube bere ibaiadarrerako. Sare horiek araztegi banatara garraiatu behar dituzte hondakin-urak: Markijanara (Aiar Herri) eta Basaurbera (Laudio), hurrenez hurren.

Instalazioek Aiaraldea eskualdea osatzen duten udalerriei emango die zerbitzua, baita Urduña eta Orozko ondoko udalerriei ere. Eskualdeak 45.428 biztanle izango ditu, eta industria-sare estimagarria.

Goi Nerbioikoarazketak hiru hamarkadako atzerapena darama bere obren exekuzioan. Gaur egun, arau-hauste prozedura batean dago sartuta, ez dituelako bete Europako Zuzentarauan arazketaren arloan ezarrita dauden baldintzak, eta araua hautsi izana jakinarazi izan zaio, pertsonentzako ur osasungarria delako.

2018an zehar, aurrera egin da administrazio-izapidean (ingurumen-inpaktuaren adierazpena, Goi Nerbioiko saneamendurako kolektoreen lizitazioa, Markijana eta Basaurbeko hondakin-uren araztegiaren proiektu teknikoak...), baina espedienteak geldituta daude, izapide ekonomikoa egiteko zain, hau da Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu ala ez, horren mende daude, eta horrek zalantza sortzen du exekuzioan.

MOZIOA:

Aiara Herriko Udaltzako beste behin ere salatu egiten du Goi Nerbioiko saneamendu-obren exekuzioa atzeratzea eta ezbetetzea.

2.- Aiara Herriko Udaltzako salatu egiten du Espainiako Gobernuak Goi Nerbioin hain beharrezkoa eta premiazkoa den saneamendua egiteko duen utzikeria eta borondate eza, urteetan atzerapenak eta ez-betetzeak egon eta gero; aitzakiatzat hartuta proiektua Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzearen edo ez onartzearen mende daudela.

3.- Aiara Herriko Udaltzako Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Espainiako Gobernuak gaur egungo posizioari eusten badiu eta gelditu egiten baditu edo ez baditu egiten Goi Nerbioiko araztegiaren obrak, subsidiarioki egin dezala proiektua eta berreskura dezala obraren kostua Kupoan deskontua eginez.

4.- Aiara Herriko Udaltzako inplikaturako erakundeei helaraziko die egitasmo honen edukia.

Nerea Goti Valle zinegotziak (EH-BILDU) hartu du hitza, eta adierazi du Goi Nerbioiko saneamendu-proiektuaren egoera kezagarria dela. Esan du Madrilgo aurrekontu-eztabaidaren mende dagoela oraindik eta egin gabe dagoela, hamarkadetako atzerapena eta gero. Gaineratu du ez direla ari betetzen Europako zuzentarauak, eta Espainiako Gobernuak ezer egin gabe jarraitzen badu planteatzen dutela Eusko Jaurlaritzak egin ditzala obrak eta kupoaren bitartez berreskura dezala kostua.

Nerea Goti Valle zinegotziak (EH-BILDU) adierazi du akats bat aurkitu dutela mozioaren bigarren paragrafoan, eta Orduña ez dela agertu behar, baduelako araztegia. Hortaz, biztanle kopurua txikiagoa da: 35.000 biztanlekoa. Honela geldituko litzateke paragrafoa:

“Instalazioek Aiaraldea eskualdea osatzen duten udalerriei emango die zerbitzua (Amurrio, Laudio, Araia hein batean), baita Orozko ondoko udalerrinari ere. Eskualdeak 35.000 biztanle izango ditu, eta industria-sare estimagarria.”

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkateak hartu du hitza, eta esan du arazo historikoa dela; izan ere, duela urte asko atzera bota zen proiektu bat, nahiz eta onartuta egon, araztegi bakar bat jasotzen zuena Laudion. Proiektua etenda gelditu zen 90eko urteetan, protesten ondorioz, batez ere Aretakoen ondorioz. Gero, adierazi du proiektu berriak agertu zirela. Ez daki ea nahikoa azaldu ziren, baina ez Udalak ez Administrazio Batzarrek ez zuten alegaziorik egin araztegia Aiara ez jartzeko. Amaitzeko, esan du arazoaz kontziente direla baina uste dutela eskumena duenari exijitu behar zaiola proiektua gauzatzeko eta horregatik Mozioa planteatu den moduan onartzearen kontra bozkatuko dutela.

Lauren Uria Peña zinegotziak (EH-BILDU) hartu du hitza, eta esan du hiru araztegiaren erabakia oso zaharra dela. Adierazi du proiektua ez zela egin Aretan, udan ibilgua ia hutsik gelditzen zelako, hau da, arrazoi gehiago zeuden proiektua gelditzeko. Amaitzeko, esan du hobeto izango litzatekeela noski hor egongo ez balitz baina kontua dela obra lehenbailehen egitea.

Gentza Alamillo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) esan du ados dagoela obra egin behar dela baina ez denez Eusko Jaurlaritzaren eskumena, organo eskudunak egin beharko duela obra, jada denbora asko galdu du eta.

Nerea Goti Valle zinegotziak (EH-BILDU) esan du beste proiektu batzuetan ere Estatuak ez duela egin bere ekarpena eta Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu behar izan duela eta, kasu honetan, obra beharrezkoa denez begi bistakoa iruditzen zaie salbuespeneko konponbideak har daitezkeela, aurrekontu-etzabaiden ondorioz egiten ez badira.

Lauren Uria Peña zinegotziak (EH-BILDU) esan du ez dela itxaron behar zehapena iritsi arte eta aurretik konpondu behar dela kontua.

Parte hartzeak amaitu direnean, mozioa bozkatu da. Mozioa onartzearen alde bozkatu dute, adierazitako zuzenketarekin, aurkeztu den moduan EH-BILDU udal-taldeko ordezkariak eta AIARA BATUZ udal-taldeko bi ordezkariak eta mozioa onartzearen kontra bozkatu dute EAJ-PNV udal-taldeko bost ordezkariak. Berdinketa gertatu da; hortaz, Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.4 artikuluari jarraikiz alkateari dagokio berdinketa gertatuz gero erabakia hartzea kalitatezko botoarekin, eta ahalmen hori gauzatuz, alkateak berdinketa hautsi du mozioa atzera botaz.

6.- EAJ-PNVk EH BILDU AIARAREN Mozioari aurkeztutako zuzenketa, Goi Nerbioiko saneamendu-sistemaren egoerari buruzkoa.- Jarraian, udalbatzari Aiarako EAJ-PNV udal-taldearen zuzenketaren berri eman zaio, EH-BILDUREN “Goi Nerbioiko saneamendu-sistemaren exekuzioa ez betetzea” mozioari egindakoa, honako hau dio:

“EAJ/PNVren zuzenketa EH BILDUREN “Goi Nerbioiko saneamendu-sistemaren exekuzioa ez betetzea” mozioari.

Gentza Alamillo Udaeta jaunak, EAJ/PNV alderdiko Aiarako Udaleko bozeramaileak, indarrean dagoen Araudiaren babespean, honako ZUZENKETA hau aurkeztu dio EH BILDUREN “Goi Nerbioiko saneamendu-sistemaren exekuzioa ez betetzea” mozioari.

ZUZENKETA

- 1. Aiarako Udalbatzak Estatuko Gobernuari eskatzen dio berehala gauza ditzala Goi Nerbioiko sistemaren kolektoreen eta araztegien obrak, 2017 eta 2018ko aurrekontuko erabakiak betetze aldera.*
- 2. Aiarako Udalbatzak Espainiar Estatuko Gobernuari eskatzen dio 2019rako Estatuko Aurrekontu Orokorren proiektua onartzeko prozesuan behar diren partidak eta kreditu-konpromisoak sar ditzala Goi Nerbioiko sistemaren kolektoreen eta araztegien obrak behar bezala gauzatzen dela bermatzeko.*
- 3. Aiarako Udalak ohartarazi du Estatuko Gobernuaren izango dela arazketari dagokionean Europar zuzentarauen bidez ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik ezarri daitezkeen zigorren erantzule bakarra.*
- 4. Aiarako Udalbatzak Euskadin dagoen Estatuko Gobernuaren Ordezkaritzari eta estatuko Gobernuaren Presidentetzari igorriko dio Mozio hau.*
Arespalditzan, 2019ko urtarrilaren 18an. Sin. – Izenpekoa – EAJ-PNVko Bozeramailea.”

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza, eta adierazi du soilik Estatuaren izango dela arazketaren betebeharrak ez betetzearen erantzule; horregatik, Euskadin dagoen Estatuko Gobernuaren Ordezkaritzari eta estatuko Gobernuaren Presidentetzari bidaliko zaio Mozio hau.

Hitz hartzeak amaitu direlarik, bozkatu egin da Mozioaren zuzenketa. Zuzenketa idatzia izan den moduan onartzearen alde bozkatu dute EAJ-PNV udal-taldeko bost ordezkariak, eta kontra EH-BILDU udal-taldeko hiru ordezkariak eta AIARA BATUZ udal-taldeko bi ordezkariak. Berdinketa gertatu da; hortaz, Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 41.4 artikuluari

jarraikiz alkateari dagokio berdinketa gertatuz gero erabakia hartzea kalitatezko botoarekin, eta ahalmen hori gauzatzuz, alkateak berdinketa hautsi du eta onartu egin da Mozioari eginiko zuzenketa, idatzita dagoen moduan.

7.- Alkatetza Dekretuen Kontu Ematea. Jarraian honako alkatetza dekretuen berri eman zaio Udalbatzari: 2018/594etik 2018/622era arteko Alkatetza Dekretuak, biak barne, eta 2019/1etik 2019/25era artekoak, biak barne. Hau da dekretu horien edukiaren laburpena:

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/594.- Aiaran oinezkoentzako bideetan seinaleztapenaren hornidura eta obra kontratuaren esleipena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/595.- S.O.M.- Obraren uda- lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/596.- Administrazio Batzordeak eta Aitzinako Salvada mendizerrako Ermandadea – Diru-laguntza Aiarako ehiza barrutian dauden lursailak aprobetxamenduan edukitzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/597.- Fundacion Alday. – Diru-laguntzaren ordainketa eguneko egoitza kudeatzeagatik, azaroa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/598.- Elkarkidetzaren Pentsioak.Fakturaren onarpena, 2018ko abendua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/599.- Kreditu gehigarrien onarpena

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/600.- Udal aurrekontuko gastuen egoeran kredituak baimentzeko espedientea onartzea, 2018ko aurrekontua.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/601.- Apartamentos Turísticos Llanteno S.C – Obretarako udal-lizentziaren emakida, 2. poligonoko 1236 lursaila urbanizatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/602.- S.O.M. - Fidantza eskatzen zaio Izorian eraikina birgaitzeko obrako hondakinen kudeaketagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/603.- Tramame, S.A.- Remai,S.A.- Abian jartzea jardueralizentzia eguneratzeko indargabetze-espedientea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/604.- 2018ko abenduko aparteko pagaren nominen hilabeteko txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/605.- Menoioko Administrazio Batzordea – Obretarako udal-lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/606. - Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.- Hondakinak kudeatzeagatik jarritako fidantza itzultzeko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/607.- JJAS.Ibilgailuari behin betiko baja emateagatik 2018ko TMIZaren ordainagiriaren zatia itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/608.- Etxaurren Ikaskolako IGE. Azaroko nominak ordaintzea eta abenduko aparteko paga talde psikopedagogikoa eta bi urteko gelako laguntzaileari.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/609.- C.B.A.- Murgan dagoen partzelako murrua konpontzeko obretarako udal-lizentziaren ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/610.- J.A.M.G.- Obretarako Udal Lizentzia ematea Quejangan dagoen etxebizitzan zenbait jarduketa burutzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/611.- Alderdi Politikoei ekarpen ekonomikoa, 2018ko abendua.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/612.- Udalkideei ekarpen ekonomikoa, 2018ko abendua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/613.- TMIZetik salbuestea, mugikortasun urriaegiaztatu duelako.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/614.-. JM.S.Hibilgailuari behin betiko baja emateagatik IVTM 2018 ordainagiriaren zatia itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/604.- 2018ko abenduko nominen hilabeteko txostena onartzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/616.- Artziniega eta Okondoko Udala.2017ko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen mantenuagatik ordainketa eskaera.

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/617.- I.E.C eta M.V.R behin-behineko kontratazioa – (uztailaren 3ko 32/2018 Foru Dekretua).

ALKATETZA DEKRETUA - 2018/618.- A.A.A.-ren behin-behineko kontratazioa – (Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen laguntzen deialdia.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/619.- Udal igerilekuan estalkipeko eremu bat instalatzeko oinarrizko proiektuaren onarpena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/620.- AIARAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEAK.- 2018ko obrak gauzatzeko gastuetarako diru-laguntza ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2018/621.- AIARAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEAK.- 2018ko ordainsari teknikoen gastuetarako diru-laguntza ematea.

ALKATETZA DEKRETUA- 2018/622.- F/2018/19 fakturen kontabilitate-zerrendaren onarpena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/1.- FOS Aparkatzeko txartela berritzeko emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/2.- Nortegas Energía Distribución, S.A.U.- Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasaren likidazioa, 2018ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/3.- Ned Suministro GLP,S.A.U.- Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasaren likidazioa, 2018ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/4.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.- Hondakinak kudeatzeagatik jarritako bermea itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/5.- Goiener, S.COOP.- Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasaren likidazioa, 2018ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/6.- Gizarte Segurantzaren Kotizazioen ekarpena, 2018ko azaroa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/7.- S.V.R.I.- Etxebizitzako estalkia zaharberritzeko lanen udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/8.- M-D-C-E- Etxebizitzako fatxada zaharberritzeko lanen udal-lizentzia ematea

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/9.- J.J.S.A.- Etxebizitzako estalkiaren teilak zaharberritzeko lanen udal-lizentziar ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/10.- F.A.L eta E.A.G.- Obren udal-lizentziaren espedienteari lotuta agiriak gehitzeko eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/11.- A.t.G eta J.M.A.- Obren udal-lizentziaren espedienteari lotuta agiriak gehitzeko eskatuz.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/12.- Langileen kontratazioko nominen hileko txostena onartzea, 2018ko abendua.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/13.- EDP Comercializadora de último recurso, S.A.- Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasaren likidazioa, 2018.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/14.-. EUROMEX.- Zinegotzi eta langileentzat bizitza eta istripuen aseguru-polizaren kontratazioa, 2019.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/2.- EDP Comercializadora, S.A.U.- Jabetza publikoa okupatzeagatiko tasaren likidazioa, 2018ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/16.-. B.B.B.- 2018/3/S330/1 ZK. eta 2018/3/S330/2 ZK. hirigintzako ordena zaharberritzeko espedienteetan interesatutzat hartuz.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/17.- Etxaurren ikastola Gurasoen elkarte. Bi urteko gelako psikopedagogia taldea eta laguntzailearen abenduko nominen ordainketa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/18.- BBB.- Administrazio-espedienteko informazio publikorako sarbidea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/19.- A.L.O.- Administrazio-espedienteko informazio publikorako sarbidea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/20.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.- Administrazio-espedienteko informazio publikorako sarbidea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2019/21.-Eskutxi Ahotsak. 2018ko diru-laguntzen %90eko ordainketaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/22.- Etxaurren Ikastolako IGE. 2018an emandako diru-laguntzaren ordainketa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/23.- Gurasoen Elkarte Babio.- Diru-laguntzaren ematea, 2018.

ALKATETZA DEKRETUA- 2019/24.- Pilbacken S.L.- Obraren Udal lizentziaren espedienteko agiriak gehitzeko eskaria.

ALKATETZA DEKRETUA - 2019/25.- V.G.M- Lehenengo erabilpen eta okupazioagatiko baimenerako agiriak gehitzeko eskaria.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta 2018/603 Alkatetzak Dekretuari buruz galdetu du. Dekretu hori Tramame S.A eta Remai, S.A-ri jarduera lizentzia eguneratzeko indargabetze espedientea abian jartzearen ingurukoa da..

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du espedientea abian jarri zela jarduera lizentzia kentzeko, Eusko Jaurlaritzak Ingurumen Baimen Bateratua baliogabetu duelako, nahiz eta akordio hau ez den behinbetikoa, eta uste du alegazioetarako emandako epea amaitzeaz dagoela; gehitu du Eusko Jaurlaritzarekin hitz egingo dela aurkeztu dituzten alegazioak ikusteko.

Iraida Saenz de Lafuente zinegotziak (AIARA BATUZ) udal-igerilekuan estalkipeko eremu bat instalatzeko oinarritzko proiektuaren onarpenaren inguruko 2018/619 Alkatetzak Dekretuari buruz galdetu du, ez baitute honen berririk.

Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV) erantzun du onarpen Dekretu hau Foru Planean eskatzen dena betetzeko egin zela, baina kontratu txikiaren esleipena duen arkitektoa proiektua idazten ari da eta amaitzen duenean Batzordera ekarriko da.

Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza adierazteko Aiara Batuz-eko zinegotziarekin bat egiten duela eta oinarritzko proiektua Batzordera ekarri zitekeela.

Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du ea zein Batzordetan landu den Aiarako oinezkoentzako bideen egokitzapena Aialurri esleitzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du kontratu txiki bat esleitzeko ez dela beharrezkoa Batzorde batera eramatea; adierazi du laguntza bat eskatu zaiola Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari ibilbide osasungarrien sarearen barnean, eta Aialur-en txostena dugunean seinaleztapenarekin Batzordera ekarriko dute, ziurrenik otsailean.

Esteban Hernando Landa zinegotzi jaunak (EH-BILDU) azpimarratu du gai hau ez dela landu inongo Batzordeetan esleipenaren aurretik.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dela beharrezkoa esleipena Batzordera eramatea; izan ere, kontratuak esleitzeko eskumena Alkatetzak du indarrean dagoen legediak ezarritako mugen barruan.

8º.- Eskaerak eta galderak.-

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak hartu du hitza (EH-BILDU). Adierazi d, hilaren 19an Malato zuzendari egingo zaion omenaldiari lotuta, bere talde politikoa ez zaiola zuzena iruditzen horren gai garrantzitsua Batzordean aurretik aurkeztu ez izana, eta horren inguruko jakinarazpen telefonikoa bakarrik egon izana. Hori bera adierazi zuen Euskera, Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Batzordeak 2019ko urtarrilaren 15ean egindako bileran. Horren ostean, azaldu du EH-BILDU ekitaldira bertaratu zela berreskurapenean inplikatu zirenekiko errespetuagatik, baina Korporazioari (herritarrek osatzen dutena) ez zitzaion modu egokian jakinarazi, ez abenduan, ez urtarrilean. Gainera, adierazi du ekitaldi inklusiboagoa egiteko aukera galdu dela; izan ere, Administrazio-batzarrek, elkarteek, ikastolak... ez dute esku hartu, ez baitzen soilik Luiandoren ekitaldia. Nabarmendu du egitasmoa egokia iruditzen zitzaiola, baina jenderik gehiena kontuan hartu gabe egin dela; horregatik, eskatu du horrelako ekitaldietan jende gehiago aintzat hartzea, eta ez daitezela ekitaldi elektoralistak.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ekitaldi horretarako ez dela egon gonbidapen ofizialik, San Prudentzioko txupinazorako edo San Isidorako gonbidapenik egon ez zen bezala. Adierazi du honako hauek gonbidatu zituela: Arabako ahaldu nagusia, Batzar Nagusietako presidentea, Aiarako alkatea eta Luaiondoko Administrazio-batzararen presidentea. Gainera, azaldu du berak oso argi duela ekitaldi instituzional baten eta alderdi baten ekitaldi baten arteko aldea, eta, kasu honetan, ez zen horrela. Jarraian, adierazi du alkatetzak honek ez duela inoiz erabili Udalaren diru-publikoa partidu ekitaldiak egiteko. Hala ere, oso ezberdina da ekitaldiaren berri eman zenean, pertsona batzuek haien bertaratzearekin erantzun zutela nolabait. Nabarmendu du jende guztiarentzako ekitaldi irekia izan zela, eta bertaratze handiagoa gustatuko zitzaikeela, baina litekeena da larunbata egunik onena ez izatea.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du ez duela ulertzen nola ondare historikoa zabaltzeko ekitaldi bat, zeinean adostasuna dagoen, isilpean egin den, udalerriko ordezkariet aurretik mahai gainean jarri barik.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) errepikatu du Airako Udalak ez zituela kargudun politikoak gonbidatu, eta beste gauza bat dela pertsona horiek bertaratzea hurbiltasunagatik.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du talde politiko bateko kargudunen bertaratzeak pentsarazten diola hauteskunde-ekitaldia zela. Gehitu du kargudun politiko gehiago bertaratu zirelaherritarrek baino.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ekitaldi horri besteei bezalako hedapena eman ziola. Gainera, nabarmendu du ekitaldiak izandako erantzuna ez dela gaia aurretik Batzordean lantzearen ondorioa.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du ekitaldi herrikoiagoa egiteko aukera galdu duela, eta litekeena dela hedapen handiagoa lortu izana guztien partaidetzarekin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) aipatu du gaia Batzordean ez lantzeagatik adierazitako kexa onartzen duela. Hala ere, ez du inondik inora uste hori izan denik ekitaldia herrikoiagoa edo itxiagoa izateko arrazoia.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) azaldu du ekitaldi publikoa bada hobe dela talde politiko guztien berrespena izatea, eta ez alde bakarretik egitea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du hurrengorako kontuan hartuko duela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du itsusia dela gainontzeko korporaziokideek ekitaldiaren berri izatea dei telefoniko baten edo kartel baten bidez.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du taldeen ordezkarietkin kontaktuan jarri zela.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hemeretzi urtarilaren hogeita lauan.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.:Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.:M^a Carmen Rojo Pitillas.